C GALDE-SORTA | HIZKUNTZA PROIEKTUAK DAKARTZAN ERABAKIEZ

Hizkuntza Proiektuak erabakiak hartzea eskatzen du. Jarduera honetako baieztapenek ondorio batzuk dakartzate: Hizkuntza Proiektuari dagozkion erabakiak hartzea, irakasleen ardurak zehaztea...

Adierazi ados zaude(te)n ala ez, 1etik 10era bitarteko graduazioa eginez.

1. Arlo guztietako tresna nagusia ahozko eta idatzizko hizkuntza da, eta, beraz, irakasle guztiok dugu horrekiko erantzukizuna.	
2. Hizkuntzen ezagutza eta erabilera hobetzeko ikasleak motibatu egin behar ditugu.	
3. Gizarte Zientzietako, Natur Zientzietako edo Matematikako klaseetan ez dago hizkuntza lanak egiteko astirik; arloaren programa betetzen nahiko lan!	
4. Ikastea ez da informazioa jasotzea bakarrik. Elkarrizketaren bidez ikasleek ezagutzak barneratu eta garatzen dituzte.	
5. Hizkuntzaren gramatika ondo ezagutu behar da hizkuntza behar bezala erabili ahal izateko. Beraz, hizkuntza arloaren lehentasuna ezagutza hori ziurtatzea da.	
6. Ziklo eta etapen artean lan koherentea egon behar da hizkuntzen inguruan.	
7. Hizkuntza bakoitzak bere lekua eduki behar du ikastetxean.	
8. Eskola orduak era orekatuan banatu behar dira hizkuntzen artean.	